

BAÑAN ȢZEIN NAIZ NI?

JOSTIRUDI-MOLDAERA GIZON BAKARRENTZAT

BI EGINTZAN

Marzelino Soroa Lasa jaunak

Izkribatua



SAN SEBASTIAN

Imp. de J. Barroa & maso, P. Constitución, 1, 3 y 5

**—
1907.**

BAÑAN ¿ZEIN NAIZ NI?
JOSTIRUDI-MOLDAERA GIZON BAKARRENTZAT
BI EGINTZAN
Marzelino Soroa Lasa jaunak
izkribatua
SAN SEBASTIAN
Imp. de J. BAROJA E HIJO, P. Constitución, 1, 2 y 3
1907.

Irudigilreak	Eginzalleak
JOSE-ANTON	
ON BALDOMERO....	
MARTIN.....	
ATANASIO	
LEANDRO	
JULIAN.....	
BATISTA.....	
PACHI	

Gertaera iduritzen da Arano-aldean

OARKERAK

Joshe-Anton-en janziak izan beardu albada, elastiku urdiñ gorrishka, lotzeko zinzilikariyo edo borla antzekuekiñ, baserritar gisan, boina, ta galtzak anketan bilduak mantar ta abarkarekiñ. Onek ea Martin-ek aski dute trukatzia, bere garaian, saku edo abrigu luzebat elastikarengatik; eta boina, jipijapa edo lastosko chapel zabalengatik.

On Baldomero-k azaldu bear du gizen anzean.

Batista, Julian ta Pachi, ondocho janziak.

LENENGO EGINTZA

Iruditegian azaltzen da mendi-basoa, echola baten sarrera estalki batekiñ ikuslearen eskuietan dagola. Erdiyan arbola azpiyan arkaitz antzeko esheri leku bat. Menditik berakobide bat arkaitz tartian. Bere denboran chimistak eta turmoyak.

LENBIZIKO IRUDIA

I

BATISHTA, PACHI ETA ATANASIO (*makill luze banekiñ esherita.*)

BATISHT. Bañan ¿noiz arte ibildu bear diagu festontan? Goizeko labetatik onera mendiyan gora bera pauso franko alperrik emandizkiagu. Neka neka egiñ nak.

ATANAS. Ala dek; bañan ezin utziko diagu lan au esku artetik, gure eskuetan choriya erori arte. Badakik nagusi jaunak agintze gogorra egiñ zigula.

- BATISHT. Bai; ta atzo onla, gaur onla ta...
- ATANAS. Bear bada, bigar ere onela. Gure nabugoki edo mayorazkua arkitu arte eziñ biurtuko gaituk echera, eta bera eramanik gurekiñ batian.
- PACHI
ATANAS. ¡Ez dizkik bada naspilla charrak jartzen! ¿Eta esagutzen aldek?
- Ez, esagutu ez. Mutil koshkor bat zanetikan ez omendek gure nagusiyen echian arkitu; baizik bere ishturiotan ibilli Prantzi ta Ingalaterrako eskola aunditan, ta gero urez joanda, arritzekuak izan bear ditek orrek egindako itsaz bideak. Jo omendiizkik munduan diran bantzarrak guziak eta geiago.
- BATISHT. ¡Arrayia! ¡Ez guchi ere! ¿Besta munduan edo nun?
- ATANAS. Ori dek esatia; esaera bates, esaera batera, Sebastopolen ere izandu dala ta...
- BATISHT. Ta ¿nun dago ori?
- ATANAS. ¿Nun? Ara, kontu aterazak au dala mundua (*makillarekiñ borobiltasun bat egiñik, eta andik kanpuan urrutti siñalaturik.*) ta... emen.
- BATISHT. ¿Mundutik kanpuan?
- ATANAS. Or nimbait Eta gazterik joanukan gero, diotenez.
- BATISHT. Bañan esagutzen ez badiagu, ¿nola konturatuko gaituk zein dan?
- ATANAS. Askazak bada burua. ¿Ez aldek somatzen?
- PACHI. Nik ez beñepin.
- ATANAS. Pachi-kirten izanik ez nikan uste orren kirtena izango itzala.
- PACHI. Ta ¿errez aldek somatzia?
- BATISHT. Iretzat ez beñepin; bañan ez dek arritzekua besterentzatere.
- ATANAS. Nik bazekiat... dakitalako.
- PACHI. Orrela alderatuko ninukek ni ere zerbait somatzera.
- ATANAS. Bada nagusiyak aditzera eman zirakan zer da nola esagutu eta ori arrek ere bestez jakindurik.
- BATISHT. Bañan ¿gure nagusiyak ere ez aldiak esagutzen...?
- ATANAS. Ta ¿nola esagutu orrenbeste urtian ikusi ez badu, au da, aur bat zanetik? Gure nagusiyak naizikan iruki illoba berekiñ, bere aldamenian, zoraturik dagüelako jakiteko arren itzaz bideko kontu arrigarri guztiak, eta illoba aterazala noski bere osabarengana etortzeko asmoan eta gaur dek eguna agertu ez dana.
- BATISHT. Orduban osaba larriturik egongo dek, zer gertatu otezaion...
- ATANAS. Bai, alde batera baj; bañan ez dek estutzen ainbesteriano, jakiñik illoborrekin ditubela oso zelebrekeri aundiak, ta far egiñazitzeko somaturik aterakeri jolasgarritshuenak, eta baita litekela ere ukatzia bera dala edozeñ gezur sorturik, bañan ez zinisteko arri ezer eta onez onian nai ez badu Joan, indarrian eramateko.
- BATISHT. ¿Eta esagutu? ¿nola?
- ATANAS. Ortarako esanzirakan zeramala soñ arizko saku antzeko luze bat, mantar ankak edo polainak, eta kipi-kapasko chapela. Gañera berekiñ zeremala chakur bat. (*Alchatzendira.*)
- BATISHT. Ortara antza artu lekiokek. ¿Bañan alde abetan orrela ibiltzeko kasketen bat jarriko zitzayokan bada?

- ATANAS. Badik noski zerbait zer ikusi bearra. Itsasua utzi ta lurraldi eutsi bear omen ziok, ta mayorazguna nola dan, andre gayare ez dik nola naikua biarko.
- PACHI. Ordubar bazekiagu, eizaren ondotik zebillek. Ta guziak orrela dirala ¿erre izango alda mayorazko jaun bat gurekiñ eramatia, gogoz etortzen ez bada?
- ATANAS. Agintea, agintea dituk; gure nagusiya nagusiya dek; gañera alkatia, eta alde batera edo bestera arren esanari alegiñian konplimentu eman bear ziyoga.
- BATISHT. Bai ori ala dek, bañan bere zailtasunak izango dizkik gauzak.
- ATANAS. Guk saiatu egiñ bear diagu, ta ortarako ibilli norbaiti galdeturik bidea.
- BATISHT. Ara an mutur aldian azaltzen dek norbait bañan ez dik mayorazkuen ichurik. Ez dik jantzi zuririk eta sakur...
- ATANAS. Gorririk. (*Ojuka barren aldera.*) ¡Adiskidea!

BIGARREN IRUDIA II LENGUAZ ETA JOSHE ANTON (*barrenen, urrutitik bezela*)

- JOS. ANT. ¡Eup!
- ATANAS. Ikusi dezu gizon bat...
- JOS. ANT. Ez jauna.
- ATANAS. Zuriz janziya...
- JOS. ANT. Ez jauna.
- ATANAS. Zakur batekin...
- JOS. ANT. Ez jauna.
- ATANAS. ¿Au alda erriko bidea?
- JOS. ANT. Bai jauna,
- ATANAS. ¿Bertan dago?
- JOS. ANT. Bai jauna, bai; lengo lekuan bertan.
- ATANAS. ¿Zenbat bide?
- JOS. ANT. Ori... bidea... batzuentzat luzea ta bestientzat mochago, bañan bidea beti bera; nola ibilzendan bat... Beok iru dira ta berdiñ egin eskero, irutatik bat... bakotzentzat; bestela ordubete lushe shamarra... bi orduren antzian... zerbait luzatu eskero.
- ATANAS. Ondo da, ondo da; eskerrikasko.
- JOS. ANT. Zuazte ondocho.
- ATANAS. Lenbailen jutia izango diagu onena.
- BATISHT. Ta ¿ez badegu arkitzen?
- ATANAS. Ez badegu arkitzen alde ortan, beste aldera artu bearko. Inguru abetan dabillela jakiña dek; bañan berak ere jakiñik noski arren billa gabiltzala, alde egingo dik nor edo nor kontuan jarririk ortarako.
- PACHI. Orduan osabak ichogon lezakek pacharan

ATANAS.
BATISHT.

Ez dik oneskero asko luzatuko gauzak. Guazen bada lenbailen.
Guazen, guazen.

IRUGARREN IRUDIA
III

JOSHE ANTON (*Barrendik kantari bere gisa ta inguratzen.*)
Goi alde ori noski
asi da aserretzen.

Trumoya gañian degu; guchi edo asko bota bear du, bañan ez diruri gogor joko dubela.. Ta egun abetan emen jende berriya dabill noski. (*Asten dira chimistak eta turmoyak eta bakoitzian, Joshe Anton ziñatzenda*) Ez dijuaz bada egualdi charrak. (*Eche ateko estalkian ari da zerbait lanetan bezela otarre belar ta beste gauzekin.*) Aurten beñepin ugari izango da belartia eguz-ki ta eudi gozoekin, eta soroak erruz emango dute. Lurrak indarra gogotik artu du! Ez dago, ez dago; lurrak ematen ez badu ez da gauz onik. Ta legorte aundiak ikaragarriak dia. Asi da, asi da arintzen goibeltz ori. Ara emen beste jende berriya. Ta jaun aundietakuak diruite. Abek ere egoaldiak botakosituen bastar ontara. (*Alchaturik.*)

LAUGARREN IRUDIA
IV

MARTIN, JULIAN TA JOSHE ANTON

JULIAN.
MARTIN.
JULIAN.
JOS. ANT.
JULIAN.
JOS. ANT.
MARTIN.
JOS. ANT.
JULIAN.
JOS. ANT.

Mayorazgo jauna, nere ustez onena izango degu estalpian sartzia eta nai badu galdetuko diyot nik orri...
Bai, bai Julian.
Egun on, adiskidea.
Ongi etorri, jaunak. Baita beoiyere.
Emangodiguzu esheri leku bat eta zerbait jateko?
Jaunak, guk modu eskashak ditugu, bañan echola chatar batean eman litezen zeziña pizka, pitarra, ta nun etziña gogo aundiz emango diotet. Sartu bitez, sartu bitez.
Tira, torizu.
¡Utzi beza! ¿Zer ematen dit?
Artu zazu, artu.
¡Bañan jauna...! Millesker.

BOSTGARREN IRUDIA
V

JOSHE ANTON

Ez guchi ere. ¡Diru aundia! ¡Bost peztakua! Ez dira orlako asko azaltzen alde abetan. Antza eman det nik bereala jaun gaiñ gañekoen bat izangozala bere lagunzaliakin. Orreatik ondocho gorde bear det nik au (*gorderik pañeluan korapillua egiñik*) nerekiñ zintzo oitu arte... Ez dezan uste gabian alde egiñ. Eta diru onen diñako gauzik emateko errez izango aldet, diranak ta ez diranak ateraiak? Ez diranak beñepin eziñ berealakuan emango diskate. Abek bildu ta nuan barrena zer nai ote duten galdezera; guchi dan lekuak ezin gauz aundirik eman. Ez da jaun ori orrela oitua egongo bañan, bearrok eskalien duen bezela, nola ta zertan arkitzen dan bat, ori.

SEIGARREN IRUDIA
VI
JOSHE-ANTON ETA JULIAN

JULIAN. Nagusiak zure galdea egiten du.
JOS. ANT. Bai, bai; orainchen nijoan (*Sartzenda.*)
JULIAN. Orra oraiñ, zakurren festa; zakurra galdu .. eta ishtilluak ditugu. Ta ez du urrutti izan bear. Nagusiari burutaratu zaion bezela arkituko balu gizon onek... Bestela neronek ibilli beariko ditut baztar oiek. Ez da bada ordu laurden bat gurekin zala, ta turmoi kontu orrekin uste gabian eskutatu zaigu; nagusia beñepin ez da konturatu orduan, ta ezta ni ere. Bañan, ez alda galduko inguru abetan. Ez ditu sudur charrak; eta bezterik ez bada errira jechiko da. Bitartian ikusiko degu nola ateratzen dan menditar onen sayua nagusiyari burutaratu zaion bezela. Emen da gure gizona. Azer planta dakarren ¡Je, je!

ZAZPIGARREN IRUDIA
VII
JULIAN TA JOSHE ANTON

JOS. ANT. ¡Ja, ja, ja! ¡Au bai dala apaintzia!
JULIAN. ¿Majo e?
JOS. ANT. ¡Esango nuke! Bañan ¡iñauteriak aldira erriyan edo zer?
JULIAN. ¡Je, je! Zer esan dizu nagusiyak?
JOS. ANT. Ia zakurra arkitu nezakean, eta jantzi onekin ikusirik nereganatuko dala, eta oju egiteko... oju egiteko... Truko.
JULIAN. ¡Je, je! Turko.
JOS. ANT. Bai, bai, ori bera; badakit, Truko. ¿Eta uste dezu zakurrak ikusirik soña onekin ustekoduela arren jabea naizela?
JULIAN. Beñepin zerbait arrasto arkituko du ortan.
JOS. ANT. ¡Bai! nik arrapatzen badet lotuta ekarriko det... ara lokarria ere eman dit... Bañan,¿ koskalariya alda?
JULIAN. Ez, ez; ez da orren goziak egongo, zuri aragi puskenbat kentzeko.

- JOS. ANT. Nai badu bada egin dezala arratara jantzi ontan, noski nagusiak beste bat erosteko ez du diru eskasirik izango ta... Banua bada.
- JULIAN. Ia lenbailen ekartzen dezun.
- JOS. ANT. Neregatik ez da geldituko beñepin. (*Deika dijua.*) Truko... Truko...

ZORTZIGARREN IRUDIA

VIII

JULIAN

¡Truko! Bere artan, aurrera. Eta guztiak orrela dirala ez gaituztela emen arkitu gure billa dabiltsan jendeak. Mayorazkuen osabak arrazoia du, ta luze iritzirik egongo da illoba bere aurrean ikusiarte, bañan ¿nork aditzera eman, daukan asmuekin? Ez du aitatzia ere nai, eta aguro esango du: ez naiz ni aur bat eta badakit zer egiten detan; denbora guchi barru joango gera. Bañan denbora ori luzatzen dijua. Ala ere esan du ez dala gaurtik luzatuko gure joera. Eta bitarte ontan esagun da osaba jauna larritua dago, bere echekoak bigaldu ditubenian gure ondoren, aginte estuekin inguruko erriyan esan dutenez. Ara berak, oiek izango dira gure atzetik dabiltsanak. Ba ez bada mayorazkua kontuan jartzia izango det onena.

BEDERATZIGARREN IRUDIA

IX

BATISTA, PACHI TA ATANASIO

- ATANAS. Berriz ere emen gaituk alperrikako ibilliekin. Bañan goi orrek ain ichura charra artudik...
- BATISHT. Bai turmo trumoyak jotzen asi danian ez ziruikan orren aguro alchatuko zala egoaldiya. Eta gaurko goiza ere aurrera ziak, eta batekiñ eta bestiekin luzatzen badiagu, kontuak izango dituk.
- ATANAS. Eta ¿zer egingo diagü? Ez dik balio egoaldi onekin or aurrera ibiltzeak ote tartean, maiorazko jauna-re ez aldek ibilduko kanpozabalian lur loitzuetan...
- BATISHT. ¿Nork zekik? Aiñ zelebrea baldin bada, burutaratu lezaiokek ori ere.
- ATANAS. ¡Nork zekik! Arren atarekeriak usterik guchiyenkoak dituk noski.
- BATISTH. ¿Ta nola ez? Ara non dan bera.
- ATANAS. Egia dek. Jantzi zuriya, kipi-kapa, ta zakurrarekin.
- BATISHT. Mendi tontorre aldetik.
- ATANAS. Alde ontara ziatok. Kontu Pachi, kontu.
- PACHI. Bai, bai; orainguan arraya sarian dek.
- ATANAS. Jarri gaitian alde banetara. Noiz nai eusteko gisan. Alde egiten badu, galduak gaituk gure nagusiekiñ.
- PACHI. Bañan mayorazkua indarrian eraman...
- ATANAS. Besterik eziñ bada. Egon, egon; emen dek.
- BATISH. Sokamuturra, Donostian esaten duten bezela.

PACHI. Eta, bat batian azalduko gaituk; ondo itzegin ia jartzen otedegun gure alde.
BATISH. ¿Ta bestela?
ATANAS. Bestela... bestela... naiz elduta eraman, eta gure agindua egiñ. Ara... ona... ona... isho

AMARGARREN IRUDIA
X
LENGOAK ETA JOSHE ANTON

JOS. ANT. Truko... Truko...
ATANAS. ¡Mayorazko jauna!...
BATISH. Jauna...
JOS. ANT. ¿Eee?
PACHI. ¡Beaz emen dabill!
JOS. ANT. Uste det baietz.
IRURAK. ¡Ja, ja, ja!
ATANAS. Asi da, asi da.
JOS. ANT. ¿Azi? Aspaldicho ontan ez askorik.
ATANAS. ¡Je, je!
JOS. ANT. Ta ¡ja, ja! Umore ona dakazute noski.
ATANAS. Beorrekin bai, beorrekin, mayorazko jauna.
JOS. ANT. ¿Mayorazko jauna? ¡Ja, ja, ja! Zubek amaiketakoa goiz shamar egiñ dezute gaur noski.
ATANAS. Bañan, mayorazko jauna...
JOS. ANT. ¡Zer mayorazko eta milloiasko!
ATANAS. Badakigu bai oso alaia dala.
JOS. ANT. ¿Bai e? Ez det bada nik oraindik amaiketakorik artu.
ATANAS. Bañan, mayorazko jauna...
JOS. AN. ¿Berri?...
ATANAS. Jakiñen gañian zaude bai, zelebrekeriz ukatu lezakelare.
JOS. AN. ¿Ukatuko ez det bada?
ATANAS. ¿Orrenbesteraño?
JOS. AN. ¿Zer bada? Bañan ¿Zein naiz ni?
ATANAS. ¡Je, je! On Baldomero-ren illoba.
JOS. AN. ¿Zer Baldomero, ta saldabero? ¡Ja, ja, ja!
ATANAS. ¡Je, je! Beorren osaba.
JOS. AN. ¿Nere osaba? ¡Ja, ja!
ATANAS. Bai, mayorazko jauna.
JOS. AN. Bada ez, gezurzulo jauna.
ATANAS. ¿Nola ez?
JOS. AN. ¿Nola? Ala. Bañan ¿Zein naiz ni? ¿Mayorazko baten arpegia aldet nik?
ATANAS. Eziñ da geiago.
BATISH. Baita birena ere jauna.

PACHI.	Baita irurena-re.
JOS. AN.	Bai; bat neria eta bestiak bestienak.
BATISTA	Osaba jaunak naidu bada, beregana bereala azaltzia.
JOS. AN.	Eskumuñak bada, utzi nazute pakean nere echera joaten.
ATANAS.	¿Nora?
JOS. AN.	Orrera.
ATANAS.	¿Bedorren echea, echola ori?
JOS. AN.	Bai, nerea; edo ni bizi naizena.
ATANAS.	¿Bedorrekin palaziyua du?
JOS. AN.	Pala... palaziyuak ez, pala-achurrak ditut nik.
ATANAS.	Berandutu egingo zaigu, jauna.
JOS. AN.	Bañan seta orrekiñ...
PACHI.	Osaba sai egonda...
JOS. AN.	¿Zer osaba ta iseba?
BATISH.	Bai, bai jauna; lenbailen joatia onena izango du (<i>Itzketan presaka.</i>)
JOS. AN.	Bañan...
ATANAS.	Utzi beza orain far kontuari?
JOS. AN.	¿Utzi? Au bai dala far kontua.
A. P. ta B.	Guazen jauna, guazen.
JOS. AN.	Bañan... bañan...
ASANAS.	Guazen, guazen.
BA. TA P.	Bai jauna, bai (<i>Zalapartan ta batian izketan eramatzen dute jira ta bira eragiñaz.</i>)

LENBIZIKO EGINTZ-AZKENA

BIGARREN EGINTZA

Iruditegia da jan-gela bat. Erdiyan mai ondo jantxitako batian plater, botilla, baso eta beste gauzak. Aldamenian silla bat eta andik urrutiyago silla-tzar biguña, mai chikibat aldamenian dubela, paper, liburu eta kanpanilla edo timbre eletrikua deritzaion arekin alde bakoitzian mayetik kapuan. Baten aldamenian beste mai chiki bat kanpanilla-elektrikakiñ. Ispillu aundi-bat armariyo baten gañian. Beste echeko gauz ederrak.

LENBIZIKO IRUDIA I JOSHE ANTON, (*bakarrik*)

Mayorazko jauna gora, ta mayorazko jauna bera. Zerbait nai badu eskatu. Zerbait nai badu agindu. ¿Eta nik zer agintzen det? Esaten diotet atariko atea nai detala artu. Eta, ezetz. Aundiegi idurituko zaiote noski atariko atea artzeko. Kanpora joan nai detala, eta ezetz. ¿Au alda agintzia? Au da morroi bat baño okerrago izatia. Ta bitartean nere ardi maiteak an egongo dira bée ta bée... (*Indarrarekiñ.*)

BIGARREN IRUDIA
II
JOSHE ANTON ETA LEANDRO

LEAND.	¿Deitzen aldu mayorazko jauna?
JOS. AN.	Zer deitu, ta zer mayorazko, ta zer nagusi?
LEAND.	¡Je, je!
JOS. AN.	¿Je, je?
LEAND.	Umore ona beti beorreka.
JOS. AN.	Umore... Bañan ¿ez dizutet esaten ni ez naizela...
LEAND.	¿Beorri?
JOS. AN.	¿Ura?
LEAND.	Ura ez.
JOS. AN.	Ezta sagardua ta arduare.
LEAND.	¡Je, je!
JOS. AN.	¿Zer je, je, ta ji, ji?
LEAND.	¡Jo, jo!
JOS. AN.	¡Jo? ¡Ju, jujúúúú! (<i>ojuka</i>) irrintzi egiten degu guk.
LEAND.	¡Bañan zer bromea duen!
JOS. AN.	Guk egiten degu irrintzi, ta zuek arrantza!
LEAND.	¡Je, je!
JOS. AN.	Arrantza bapoa egiñ dezute nerekir, ez dezute arrai charra arrapatu.
LEAND.	Bañan ¡zer gauzak esaten dituben!
JOS. AN.	¿Zer gauzak? Tira ¿zeiñ naiz ni?
LEAND.	¡Beorri... beorri! ¿Ez aldakigu bada?
JOS. AN.	¿Bai e? Eta jakin da, nola zabiltzate nazpilla abetan? Tira ¿zein naiz ni?
LEAND.	¿Berriz ere ortan da? ¿Zeiñ izango da? Mayorazko Martin Quintin-jauna.
JOS. AN.	(<i>Arren antzian</i>) ¡Mayorazko jauna!
LEAND.	Orra bada.
JOS. AN.	Orra ez bada.
LEAND.	¡Bañan Quintin-jauna...!
JOS. AN.	¡Ze Quintin ta tintirintin! ¿Zoratu nai alnazute?
LEAND.	¡Beorrek esango dituenak!
JOS. AN.	Nik esango dituanak dira ez naizela Quintin baizik Joshe Anton arzaia.
LEAND.	¡Ja, ja, ja!
JOS. AN.	Ta janzi au ez dala neria. (<i>Arizko sakuengatik.</i>)
LEAND.	¡Ja, ja, ja! ¡Zer farrak egingo dituen beoren osabak datorrenian.
JOS. AN.	¿Nere osabak?
LEAND.	Bai, gure nagusi jaunak.
JOS. AN.	¿Bai? Bada datorrenian, esaiozu presa nuela ta joan naizela; eta etorriko naizela, arkaitzak loria ematen dutenian.

- LEAND. Barka beza, bañan iñolare ezin liteke ori. Aginte gogorrak artuak ditugu, eta beorri alde egiten utzi ezkerro, guk ikusi bearko genituke ihstillu gorriyak.
- JOS. AN. ¿Eta nik, ihstillu churiyak ikusi biar alditud? ¿Beaz, ni, ez naiz ni? e?
Eta ni ura naiz, eta ura ez da ura, eta ura ni da ta...
- LEAND. ¡Ja, ja, ja! Beorrekin agindu besterik ez du naiduena.
- JOS. AN. ¡Agindu, agindu! Tira bada; ateak iriki neri.
- LEAND. Ori ezin liteke jauna.
- JOS. AN. ¿Ta agindu besterik ez detala?
- LEAND. Badaki gañera, osaba jauna, alkate dala.
- JOS. AN. ¿Alkatea? ¿Ta orrengatik jartzen dit *katea*?
- LEAND. Eta ukatzen badio beorrekin, beorri dala...
- JOS. AN. Bañan ¿nola ukatuko diot nik, ni, ni naizela?
- LEAND. Oraiñ bezela esaten badio.
- JOS. AN. Oraiñ bezela esango diot bada, zergatik ni ez naiz ni jarrauua! Esan naidet, ni ez naizela zuk uste dezun ni, ni ez naizela bedorri, ura dala ni, zuk uste dezun ni; ta ni ez naizela bedorri, bedorri dala ura, ta ura dala ura, ta ni naizela ni, ta... erotuko nazutela utzirik jakin gabe zeiñ ote naizen ni.
- LEAND. Bada lan bide okerra izango du bere ortan badago.
- JOS. AN. ¿Non egongo naiz bada, ez banazute ustean joaten beste aldera?
- LEAND. Eta gure nagusi jaunak aitzen badio, bere biziko kartzela dauka.
- JOS. AN. ¿Zeñek? ¿Arrek?
- LEAND. Bedorrekin.
- JOS. AN. Nere biziko...
- LEAND. Kartzela. Justizia egiteko oso alkate zuzena da.
- JOS. AN. Ori elitzake bada juztiziya izango.
- LEAND. ¿Ezetz? Bere illobarentzat izango da osaba naitasun aundikoa, bañan gezurtatua agertzen bada, osaben ordez arkituko da alkatia.
- JOS. AN. ¿Beaz? nik indarrian, naitanaez, izan bear det osabaren illoba?
- LEAND. Indarrean ez; onez onean.
- PACHI. Ta illoba naizen bitartean ¿nork kontu artuko dio nere artaldeari?
- LEAND. Umore onak beorri ez dio noski ustean.
- PACHI. Zuk bai ez nazula ustean emendik ateratzen.
- LEAND. Bazkaria, ekarriko diot nai duenian, nagusiak agindu bezela.
- PACHI. ¿Bazkaria? Gizona, orrenbeste bider esanda, orlako gogua bidaukazu neri jaten emateko ekarri zazu. Bai: bai; ez da gauza charra. Ekarri zenezazuke noiz nai; besterik ez bada naspillabek astutzeko.
- LEAND. Beorren baimenekiñ, mayorazko jauna... (*dijoia*)

IRUGARREN IRUDIA

III

JOSHE-ANTON

¡Mayorazko jauna! Ta azkenerako chinistu asiko dit mayorazkua naizela.-Eche majoa beñepiñ. ¡Zer ichura ote dakat nik soñ onekiñ! Ara an ishpillu bat. ¡Jo, jo, jou! ¡Arranua! ¿Ori ni oteda, edo ni ori otenaiz? Nik bezela bezua alchatzendu; bestia ere bai; chapela kendu ere bai (*gauz abek guziyak egiten ditu*). Bai, bai; beiñ ikusi nuen ispilla bat gure nagusien echean, eta au bera gertatzen zan. Abua iriki, bai, bai; ¡kasho motell! ¿Iñauteritan algaude orrela jasteko? ¿Eta au? (*Sillon edo sillatzar-engatik*) Esheritzeko izagonda, ¡Bapo! (*Esheritzenda ta biguntasunekin ankazgora gelditzenda*) ¡Ay, ay, ay, ay! (*Alchatzen da estuasuenekiñ*). Lurperatu nitzala uste nuben.

LAUGARREN IRUDIA
IV
JOSHE ANTON TA LEANDRO

- LEAND. ¿Deitzen altzuben mayorazko jauna?
- JOS. AN. ¿Deitu? Baita oju ere. (*Silla-zarrari begira*) Atoz, atoz. ¿Ikusten aldezu ori?
- LEAND. ¡Je, je!
- JOS. AN. Je, je, ta ji, ji-rekin ez det nik ezer egiten.
- LEAND. Bañan, mayorazko jauna...
- JOS. AN. Esan, esan berriz ere, ez astutzeko. Tira, ¿esheriko alzinake or?
- LEAND. ¡Zer alaitazuna beorrrena!
- JOS. AN. ¡Bai e! Alaitazuna ta mayorazkotazuna ta erotazuna. ¿Esheriko alziñake or? Bai edo ez beste matrakik gabe? ¿Asiko otenaiz agintzen?
- LEAND. Bañan gauza oiek ez dira guretzat egindakoak.
- JOS. AN. ¿Ez e?
- LEAND. Ez, mayorazko jauna. Guk astindu egiten ditugu; bañan autza silloitik kendu ta kanapera joatenda. Kanapetik atera ta berriz silloira eta, eta alperrikako lana.
- JOS. AN. Edo alperren esana.
- LEAND. Oyek beontzako gauzak dira.
- JOS. AN. ¿Beaz bai e? ¿Lepo ezurra austeko? Eskarrikazko.
- LEAND. ¡Je, je! Zer zelebria dan bedorri. Zerbaiten gatik esaten zuten bai:- «Gure mayorazkoa oso argia da».
- JOS. AN. ¿Bai e? ¿Bañan zeiñ ote da mayorazku ori? Maiorazkoa oso argia izango da, bañan ni ez naiz krisallua ere. Illunpetan nago gauz abekin.
- LEAND. ¡Je, je!
- JOS. AN. ¿Esheriko zera edo ez?
- LEAND. Bedorrekin agintzen badu... Orra. (*Esheritzenda.*)
- JOS. AN. Ta ez da erori ankaz gora.
- LEAND. (*Alchaturik*). Kontu bat ekarri dute nagusientzat, ta nai badu ikusi ondo ote dagon..
- JOS. AN. ¿Ikusi?

LEAND. Ar beza.
JOS. AN. (Artuta). Ikusi det.
LEAND. ¿Bañan letu gabe?
JOS. AN. ¿Letu? ¿Irakurtzen ez badakit, nola naizu letzia?
LEAND. ¡Zer aterakeriak dituen!
JOS. AN. ¿Aterakeriak? Ori nai nuke nik, aterakeri atekua: atera.
LEAND. ¿Zer esango diot bada?
JOS. AN. Bada, bada... egiteko asko detala oraiñ, ta etortzeko nagusia datorrenian.
LEAND. Ondo da, mayorazko jauna.

BOSTGARREN IRUDIA

V

JOSHE ANTON (*bakarrik*)

¡Mayorazko jauna! Etzaio beñepin ori berealakoan abotik joango ¡Aaaah! abozabalkako gogoa baziakdu bañon len. ¿Astu ote zaio baziakria, len zuen presarekiñ? Ori esheri dan bezela ni ere kontuekin esheri ninteke... Orlashen. ¡Ta au biguñ dago bat emen etzanda. Lua ematen du. ¡Aaaah! (*Nagiyak egiten ari dala besoa luzatutzen du mai chiki aldera eta jorik, soñua egin asitzen dio kanpanilla eletrika derizaionari, ta isututurik alchatzenda*). ¡Ay, ay, ¡ay! ¿Zorgiñak ote dira eche ontan!!

SEIGARREN IRUDIA

VI

JOSHE ANTON TA LEANDRO

LEAND. ¿Zerbait nai aldu?
JOS. AN. Atoz (*larriyekin bezela*) ¿Zer da ori?
LEAND. ¿Zer dan? ¡Je, je! Zer parrak eragiñ asiko dizkan osabari.
JOS. AN. ¿Osabari e? -¿Zer dan ori?
LEAND. Mayorazko jauna, nik baño obetago daki beorrekin zer dan ori.
JOS. AN. Bada ori kanpora, edo ni kanpora. Ni joatia obe izango da.
LEAND. Eramango det nai badu. -Paper au ekarri dute esanaz nagusiak primatzeko dala, eta nik nola eranzun diotan ez dagola echian, esan dirate bedorrekin primatu lezakela osabaren ordez.
JOS. AN. ¿Primatu e? Eta leitzen jakin gabe iskribatu aleike?
LEAND. ¿Oraindik bere ortan da? Zer farrak egin biardituen beorren osabak etortzian.
JOS. AN. Zuk bai ematen nazula neri parguria.
LEAND. Ona nun duen papera.
JOS. AN. ¿Papera? Osaben ordez nik primatu bear badet, berdiña izango da nere ordez suk egitea.
LEAND. Ondo da jauna. ¿Eta nai aldu baziakia ekartzia?

JOS. AN. Ekarri zazu bada; paperian baño obetago botako det prima platerian.
LEAND. ¡Je, je! Bañan zer farrak egingo dituben osabak!

ZAZPIGARREN IRUDIA
VII
JOSHE ANTON (*bakarrik*)

¡Zer parrak egingo dituen, ta zer parrak egingo dituen! Mariatzen nau gizon onek bere koplekiñ. Ishiri gaitian, ishiri gaitian... bañan ¿nun? Echi ontan ezin ikutu leike gauza bat. Danak sorginkeriz betiak daude. Ez dakit zer ikusteko nagon.

ZORTZIGARREN IRUDIA
VIII
JOSHE ANTON TA LEANDRO (*platerakiñ*)

LEAND. Ona non duben bazkariya, esheri nai badu.
JOS. AN. ¿Esheri?...
LEAND. Nagusiyak esan zigun algenduen ondoena beorri artzeko.
JOS. AN. Bai, bai; ikusten det artoa nagoala. Ni artoa izan ta zuek garia naizela uste; ez da gaizki esana. Bai; ez da gaizki esana. Bañan lapurreta bat da au, beste baten bazkaria nik jatia.
LEAND. ¡Je, je! Bañan ¿zertako esaten ditu gauz oiek? Alperrik dabill.
JOS. AN. ¿Bai?
LEAND. Ostuko zaio sopa.
JOS. AN. Ostu... Bai ori izango da, ostutzia; besteren sopa jatia. Ara esheri.
LEAND. ¿Orren urrutti esheritzenda?
JOS. AN. Ara bertago. (*Jaten aztenda*) ¿Ardoa baso chikira botatzen nazu?
LEAND. ¿Aundian nai aldu?
JOS. AN. Zertako da bada baso aundia.
LEAND. Ura entzat.
JOS. AN. Beste gisa obeto iduritzen zat. Chikian kabitzen dana obeto aundian kabituko da, bai.
LEAND. Nai duen bezela. (*Leandro joatenda eta gero dabill platera ekarri ta eraman.*)
JOS. AN. Eta ederra dago sopa. Gure echean baño koipe geiagorekiñ ¿Aranak ere bai? ¿Aranak saldetan? ¡Es det beste orlakorik ikusi! Aran zalea naiz bada ni. ¡Puf, puf zerda ori! (*Alchaturik*).
LEAND. ¿Zer gertatzen zaio?
JOS. AN. ¿Zer arboletako aranak dira oiek?
LEAND. ¡Je, je! Aranak deitu azaitunari! ¡Zer aterakeriyak; ¡Bañan zer farrak, zer farrak! (*dijua*)
JOS. AN. Aranon ez da orlako aranik. ¿Zer chori ote da plater au? ¡Guztiak keska ematendit. ¿Ardo churia ere bai? (*botilla ur-Seltzekin*)

¡Arranuetan! (*irikitzen saiaturik*) Korchua gogor shamarra dakarrela uste det; ¿Nork atera? Eta bere kako ta guzi (*bian colpiak emanik*) Ezta ere. Emen gauza guztiak arrigarriak dira. ¿Beste platerekiñ zatoz? Gure echecho otordua baño luzeshiago dala det nik au. Ia botatzen nazun piskabat ortikan, korchua eziñ atera diyot eta.

- LEAND. ¡Korchua! ¡Je, je! (*Botatzen dio basoa eta ura ateratzen dan indarrarekin, larriturik presaka maietik alchatzenda.*)
- JOS. AN. Bañan ¿sorgiñak aldira emen edo zer?
- LEAND. ¡Je, je! Zer zelebria. Ordago bat bedorren galdez esanik Aranotik datorrela eta berorren maizterra dala.
- JOS. AN. ¡Nere maizterra. Zer naspilla berri oteda au. ¡Datorrela! ¡Datorrela!
- ¡Nor oteda? Borda gañeko Batista ote da? Aushen ez dago charra. Gure echecho zeziña baño obia. Ardua ere pizkorra; barrena ederki berotzendu.

BEDERATZIGARREN IRUDIA

IX

JOSHE ANTON LEANDRO ETA MARTIN (*Joshe Antonen jantziyekin, boina eskuban dubela*).

- LEAND. Atoz aurrera. Ona non duen (*dijo*a).
- JOS. AN. ¡Ay! (*Martin ikusita alchaturik*).
- MART. Ni nator bai jauna. (*Ishiltzeko aitzera emanik*.)
- JOS. AN. Baña.
- MART. Esherri, jan ta isho. Beste ordu erdibatian ari ortan, eta etzaizu damutuko; dirua ondocho emango dizut. Gero arte.
- JOS. AN. Bañan...
- MART. Etortzen bada nere osaba, kontu esagutzera eman; zu zera arren illoba, ta ni zure biajeko laguntzallea.
- JOS. AN. Bañan...
- MART. Isho... (*Dijo*a).

AMARGARREN IRUDIA

X

JOSHE ANTON TA GERO LEANDRO

- JOS. AN. Gaur burua galtzen ez badet esan nezake ez dala arkaitzik nere buruba beziñ sendorik ¡Biaje-ko laguntzallea dala! ¡Non izan ote naiz ni jakin gabe?
(*Leandro sartzen da beste platerekin, eta ustean dizka mai gañean lengo batzubek eramanik*)
- LEAND. Artu beza, jauna.
- JOS. AN. ¿Beste zerbait? (*Juaten da Leandro*). Noiz arkituko naiz onlako beste batian. Eta ardua gero, bizigarriya dago. ¿Zertan geldituko ote dira

azkenerako gauza abek? Bañan nik, ¿zer egingo det? Nere ontan aurrera. Ukatzen badet osaben illoba naizela kartzela det, galduba naiz. ¿Eta, nola ukatu? Gañera nik osaba badet; eta arren illoba naiz. Esaten badet ala naizela dirua ondocho emango diate; kartzela alde batetik eta dirua bestetik, aukeratzen ez da zalla. Illoba izan biarko det. Ori izango da onena.- Bazkari onek ez du nozki bukaerik; ezkerrak churrutaren laguntzari, ¿bestela? ¡nola zakelian sartu au guzia! Emen mai ontan dauden gauza asko ez bearrian daudela uste det nik. Amaika gauza zortzen dituzte mundu ontan, baita amabire. Aure jateko izango da nozki... (*Artzendu, serbilleta eta egiten du jaten balu bezela eta sartzen du kolkuak jendiak ikusi gabe. Bat batian alchatzen da eta azten da karrashika itotzeko zoriyan.*) A! A! A...! (*Sartzenda Leandro.*)

LEAND.

¡Zer da, zer da?

JOS. AN.

A...! A...! A...! (*Leandro-k eltzendiyo bi eskubakin eta ateratzen diyo serbilleta, abotik aterako baliyo bezela.*)

LEAND.

¡Zer aure zintzurretik sartu aldu? ¡Ogi mamiya zala uzte al zuben?

JOS. AN.

Ez naiz charretik atera.

LEAND.

Bañan, nolatan sartu du...?

JOS. AN.

Zertako jarri nazute bada zapi ori mayian, jateko ez bazan?

LEAND.

Zer farrak egin biar dituben osabak... (*Juaten da*).

AMAIKAGARREN IRUDIA

XI

JOSHE ANTON TA ON BALDOMERO (*barrendik ojuka eta gero sarturik*).

JOS. ANT.

¿Zer farrak? ¿Farragarri enbat al naiz bada ni?

ON BAL.

(*Barrendik*) ¿Nun da? ¿Nun da? ¿Non det illoba ori!

JOS. ANT.

¡Ay! Osaba izango da ¡guriak egiñ dik! (*Alchaturik maietik*).

ON BAL.

¡A! Martin atoz nere besoetara. (*Laztandurik*) ¿Zer diozu? ¡Zer mutill ederra! Gizon bat egiñik. Aita berbera zaude. ¿Ez alnazu ezer esaten? ¡Je, je! jakiña; lenbiziko ikusiak senti egingo dizu. Esherí gaitian, esherí. (*On Baldomero silla zarrean, jarririk lenago bere ezkerretara silla bat Joshe Anton-entzat*) Tira esherí zaitez, edo luzatu egiñ nai aldezu oraindikan? Tira... (*Joshe Anton esheritzenda beldurrarekiñ bezela sillaiashkiñ-ishkinaldian*) Luzatu zera bai franko askeneko ikusi zinduztanetik. Esherí zaitez erdirago... erdirago, orrela, osabaren aldamenian. Orrenbeste urtian kanpoan ibilli ta gero! ¡Orrenbeste itsaz bide pasata zenbat lur berri ikusi ote dituzu! Zure aitak maiz kontatzen zizkiran, bai, zure berriak. Beaz... tira, tira ¿euskeraz astu zaizu edo zer? Badiruri ezin asmatu dezula itzik... Aita bera dago. ¡je, je, je!

AMABIGARREN IRUDIA

XII
LENGUAK ETA MARTIN

- MART. Jauna... (*beregisa*). Ni ez banator presaka, naspilla azaltzen da.
ON BAL. ¿Zein degu au?
JOS. ANT. O... o... ori... ori...
MART. Gure maiorazkuen biajetako lagunzalea.
ON BAL. ¿Bai?
JOS. ANT. O... Ori... Ori... Ori...
ON BAL. Euskeraz tipili tapala shamarra zaudela uste det. Bañan ez da arritzekoa orrenbeste denboren buruban. Esheriz zaitez zu ere (*Esheritzenda, On Baldomero eskuitara erdiyan gelditzen dala*). Ango kontuak aditzeko gogo aundiyeikiñ nago. Bai illoba maitea. Aita bera dago (*Martin-i*).
MART. Izanliteke bai.
ON BAL. ¿Izan litekela? Ezin da geiago.-Beaz Martin, orrenbeste ur pasata ibilduzera, e?
JOS. ANT. Ura, bai jauna, ura.
ON BAL. Ur asko.
JOS. ANT. ¡Bai! Ardorik eta sagardorik ez dan lekuau, badaki, ur asko.
ON BAL. ¡Ja, ja, ja! Asi da bere zelebrekeriakin. ¡Jakiñen gañian nago, bai, zer esan farragarriak dituzun!
JOS. ANT. ¿Orren zelebrea ote naiz ni jakiñ gabe?
ON BAL. Bañan ez dirazu osaba deitzen ere.
JOS. ANT. ¿Ez e?
ON BAL. Ez, tira...
JOS. ANT. ¡O...! ¡Osaba, osaba! (*ojuka*).
ON BAL. Orrela, orrela. ¡Aita bera, aita bera! Ta zer bazterretan izan zera?
JOS. AN. Bada... bada...
MARTIN. Filipinas-eta.
JOS. ANT. Ori, ori, Pillipe... nasetan.
ON BAL. ¡Ja, ja, ja! Ta an ¿Zer da? ¿zer da?
JOS. AN. Ur asko, jauna, ur asko.
MARTIN. Arroz ta kapia ta azukria ta tabako belar asko.
ON BAL. ¿Ta an ze lekutan izan zerate?
JOS. AN. ¿An?
ON BAL. Bai an.
JOS. AN. Bada an... an... asture bai, jauna.
MARTIN. Manilan.
JOS. AN. Bai, Manillan.
ON BAL. ¿Ta?
MARTIN. Ta... Mindanao...
JOS. AN. ¡A, bai! Mindanao; an geyenak miñez esaten dute: "min da nao."
ON BAL. Eta geiago
JOS. AN. ¿Geiago? Bañan ¿zein konturatu? (*Buruari atzegiñaz*)
MARTIN. Zebun, Ilo-ilon...

- JOS. AN. A baitare.
- ON BAL. Bañan utzi zaiozu esaten nere illobari. Zu berrichu shamarra zerala uste det.
- JOS. AN. A ez jauna, ez da ala. On bearrez esaten du.
- ON BAL. ¿Beaz Ilo-ilon?
- JOS. AN. ¡A, bai! Ilo loon. An orlako izenak dira-triste antzekoak Man-illa, ta Min-danao; ta miñez ez dagona lo lo egon ta orla.
- ON BAL. ¡Ja, ja, ja! Zer aterakeriak. ¡Aita ber bera! ¡Aita ber bera! Eta zer jende da alde aietan?
- JOS. AN. ¿Jendea? Bada bai jende mordoska bat, batzuek onlakoak eta besteak... alakoak eta... ala.
- ON BAL. ¿Gisa askokoak beaz?
- JOS. AN. Bai jauna; batzuek sendoak eta besteak argalak, eta besteak luze shamarrik eta besteak kashkarrak eta orla, guzitistik.
- ON BAL. ¿Zer klase dira bada?
- JOS. AN. ¿Klaseak?
- MARTIN. Tagaluak.
- JOS. AN. Bai, tragaluak; aiek tragatuko luteke lakari bat baba.
- MARTIN. Edo arroza
- JOS. AN. Bai; arroza. (*Beregisa*) Au bai dala biajatzia buruz. Sekulan ez naiz ibilli orrenbeste, orren denbora guchiyan.
- ON BAL. ¿Ta besteak?
- JOS. AN. Besteak... besteak...
- MARTIN. Malayuak.
- ON BAL. Nere illobak esan dezala.
- JOS. AN. Ori da; besteak marrajoak.
- ON BAL. ¡Ja, ja, ja! ¡Marrajuak? ¡Malayuak!
- JOS. AN. Bai jauna, bai; oso marrajuak dira.
- ON BAL. ¿Eta besterik?
- JOS. AN. Besterik... besterik... Bañan, ¿zein oroitu?
- MARTIN. Bisayoak.
- JOS. AN. Ori, ori. Biz... kaikoak.
- ON BAL. ¡Je, je, je! Aita bera dago. ¿Ta nun geiago ibilli zerate?
- JOS. AN. ¿Guk aldakigu? Nik ez beñepiñ. An da emen, ta aruntzago ta geiago, ta ur batetik atera ta bestean sartu, ta beti ura. ¡Zerua goien, ura bian, ta sagardorik iñon ez.
- ON BAL. Bañan, ¿zein aldetan, zeiñ aldetan?
- JOS. AN. Bada... bada... (*burubari eragiñaz arraskaturik*)
- MARTIN. Kochinchinan ere bai.
- JOS. AN. ¡Ah! bai, bai; esatera nijoan.
- ON BAL. Utzi zaiozu bada esaten. ¿Beaz Kochinchinan?
- JOS. AN. Ori, ori; Koncheshienian.
- ON BAL. ¡Je, je! Beti oker esateko gogoa.
- JOS. AN. ¡Bai zera! (¿Oraiñ Ameriketan edo nun otenabil?) Maiz izaten giñan an Koncheshienian.
- ON BAL. ¡Je, je! ¿Ta non geiago?

- JOS. AN. Ori, ori; ¿nun geiago? Ia oraiñ orrek asmatzen duen.
- MARTIN. Kanbojan.
- JOS. AN. Ori bera, ori bera: Bapojan. Bapo jan det nik beñepiñ. (Bazkari luzea zan baño, gure biajien kontua luzeago dala uste det.)
- ON BAL. ¡Je, je! Bazkaldu dezu beaz nik agindu nuen bezela.
- JOS. AN. Bai jauna ta bapo.
- ON BAL. ¡Je, je! Eta zigarrochoenbat ez nazu ekarri leku aietatikan?
- JOS. AN. ¿Zigarroa?
- MARTIN. Bai jauna; ordu bat beorrentzat.
- JOS. AN. ¿Nik?
- ON BAL. ¡A! ¡Ez zera astu beaz?
- MARTIN. ¿Ez aldaki bada? Beida beza. (*Joshe-Anton-i*)
- JOS. ANT. (*Zigarro aundi bat aterarik arrituta Martiñen saku soñetik*) ¡Arranua!
- MARTIN. ¡Ah! Bai jauna bai.
- Eta kaja bat ederrare beorrenzat gordia badauka.
- JOS. AN. (¡Non ote det nik kaja!)
- ON BAL. ¡A! Ishillik nai zenduen iruki e? Eskarrikasko, eskarrikasko; ori da maite izatia osaba.
- JOS. AN. O... O...
- ON BAL. Osaba, bai. Esan zazu bada...
- JOS. AN. O... O... Osaba.
- ON BAL. Euskaraz asko astu zaizu noski ibillera oietan, eta berriro ikasi bearko dezu. ¿Eta ez aldezu izeba ikusi bear?
- JOS. AN. I... i... liii...
- ON BAL. ¡Sóoo! Badiruri mandazai ibilli zerala. ¿Ez dirazu galdetzen izebaz ere?
- JOS. AN. ¿Nola dago? ¿nola dago gajoa? ¡Azpaldiyan ikusi gabe!
- ON BAL. Bai, urteak dira. Goazen, goazen, esagutuko zaitu. (*Alchaturik irurak*).
- JOS. AN. ¿Bai e?
- ON BAL. Bai, bai. Bañan nik lenbizi aditzera emango diot, bestela onenian geiegi larrituko litzake ta... deituko dizut.
- JOS. AN. Ondo da jauna.
- ON BAL. ¡Je, je! Aita bera, aita ber bera dago. (*masallean joaz maitasunarekin*).

AMAIRUGARREN IRUDIA
XIII
JOSHE ANTON TA MARTIN

- JOS. AN. ¡Aita ber bera! ¿Bañan? ¿zeiñ naiz ni?
- MARTIN. ¿Zu? Len ziñana. Tira aguro, ekatzu nere jantziya.
- JOS. AN. Bai, bai, gogo aundiz emango diot. Arbeza, arbeza. (*Trukaturik saku luze eta chapel jipi-japa beste janziyakin*)
- MARTIN. Eta zuri eskerrak nai nuenekiñ arkitu naizelako, torizkitzu sei ontza.
- JOS. AN. ¿Chocolate?
- MARTIN. Sei ontzaurre poltsaortan. (*Emanaz*).

JOS. AN. ¡Jauna, jauna! ¿Orrenbeste diru?
MARTIN. Bai, ta isho; orain osabarengana nua.

AMALAUGARREN IRUDIA

XIV

JOSHE ANTON (*bakarrik*)

¡Ez da propiña charra bazkal ondorako! Bañan, oraiñ len bailen echera. Ametza diruri gaur neri gertatzen-zaitan guzia. Ez naiz illoba, ta besterik ez bada, eche ontatik noizbait botako alnaute. Atia iriki ta kanpora nere taldien artera, eta an bakartazunean pentsatuko det zer egiñ diru onekiñ. Sei ontza dira... dira... bai, ori, sei ontza dira sei amaseiko, hamasei ogeiko, eta... eta.. bai, sei ontza dira... dira... sei ontza.

AMABOSTGARREN IRUDIA

XV

JOSHE ANTON TA LEANDRO

LEAND. Mayorazko jauna...
JOS. AN. ¿Oraindik orla gera?
LEAND. ¿Zer ikusten det? ¿Soña mudatuta? ¿Zer ichura da ori? ¿Orire gogoratu zaio? ¡Bañan zer zelebrea dan beorri? ¡Je-je! Choratuko du osaba beorren aterakeriekiñ.
JOS. AN. Bañan ¿Zein naiz ni?
LEAND. ¿Oraindikan ortan da?
JOS. AN. ¿Ta zu oraindik ortan zera? Begira nik oraiñ nai detana da...
LEAND. ¿Kafia?
JOS. AN. Atea.
LEAND. Ateare ekarriko diogu bada nai badu. Emen erreka aldean baditugu mordoskabat...
JOS. AN. Zu bai zerala zelebrea, zu. Kanpoko atea naidet nik.
LEAND. Bai jauna, bai; kanpoan ibiltzen dira.
JOS. AN. Atariko atea.
LEAND. ¡Geienean or aldira!- Bañan ¡Zer ichura artu duan mayorazko jauna!
JOS. AN. Ez naizela ni mayorazko ta...
LEAND. Nai duen bezela, nai duen bezela.
JOS. AN. Naizen bezela, naizen bezela, eta ez ez naizen bezela.

AMASEIGARREN IRUDIA

XVI

LENQUAK MARTIN ETA ON BALDOMERO

ON BAL. ¡Ja, ja, ja! ¿Beaz ori zan guzia? ¡Zori oneko andregaia, orla kanpoan ibilazitzeko, Ez gaituzkitzu ishtillu charrak erabilli azi. Eta gero naspillau... zu izan illoba ta...

MARTIN. Egin beza kontu jostaketa bat izan dala.

ON BAL. Aita ber bera, aita ber bera zera. ¿Orrek? (*Joshe Antonen gatik*) Orrek ez dauka antzikan, ez ta ichurik ere.

JOS. ANT. Jauna nik...

ON BAL. ¿Zer nai dezu gisarajo orrek?

JOS. ANT. Echerako bidea artu nai nuke jauna...

ON BAL. Nai dezun bezela, nai dezun bezela.

JOS. ANT. ¿Aitzen dezu? (*Leandrori*).

LEAND. Bañan nik uste nuen...

JOS. ANT. Usteak erdi ustela duela.

LEAND. Bañan...

JOS. ANT. Bañan ¿zein naiz ni? ¿Mayorazkoa?

ON BAL. Ez, ez, ikusten det.

LEAND. ¿Zein da bada mayorazkua?

ON BAL. (*Martiñengatik*) ¡Ara emen! ¿Ez aldezu ikuzten? ¡Aita ber bera!

LEAND. ¿Eta bestia?

MARTIN. Zer beste, ta zer tamboliñ.

JOS. ANT. Jaunak eskarrikasko ta gaizki esanak barkatu.

MARTIN. Ez da gaizki esanik.

JOS. ANT. Ez dakit bada, beaje oiekin mariatu naiz ta.

ON BAL. Eta emendik aurrera eterri jaiero baskaltzera eta beajeko kontuk esatera. ¡Je, je!

JOS. AN. Bai jauna, ikusirik
zer ondo artu nauten,
baskaltzera eterriko
naiz onera zuzen.
Bañan oso kontentu
gelditu gaitezen
(*Jendeari*)
¿ez aldegu chalo bat
izango orain emen?

BUKAERA

1897 garren urteko Maiatzean.